



ARRASATEKO UDALA

Bizkaiko Urtxintza
EskolaArrasate
Herri Eskola

17. alea

2003-Urtarrila

HEZKIDETZAN
Pausoz pausoPaso a paso
En la COEDUCACIÓN

ZINIKUEN TXIKITXOKOA

JOLASA ETA JOSTAILUAK

Errespetua:

Bukatu esaldi hauek: / Termina estas frases:

- Amona batek zebra bidea pasatzea nahi du baina zailtasun handiak ditu

NIK BIDEA PASATZEN LAGUNDUKO DIOT.

Una abuela quiere pasar por el paso de cebra y tiene muchas dificultades para hacerlo

YO LE AYUDARÍA A PASAR

- Patxi Xabierretaz maiteminduta dago

Patxi está enamorado de Xabier

- Maritxuk ikasketetan zailtasunak ditu

Maritxu tiene dificultades para aprender

- Perikok ez du ondo ahozkatzen eta hitzegiteko urduri jartzen da

Periko no pronuncia bien y a la hora de hablar se pone nervioso

- Aneri panpinekin jolastea ez zaio gustatzen, futbolean jolastea nahiago du

A Ane no le gusta jugar con muñecas, prefiere jugar a fútbol

Nire aita etxekoandrea da, eta zer?

Nire aitaren lanbidea izeneko idazlan bat egiteko eskolan agindu zigutenean sortu zit-zaidan arazoa. Nire gelako lagunen aitak arotzak, abokatuak, suhiltzaileak eta horrelako-ak ziren. Ni nintzen aita etxekoandrea neukan bakarra. Lagunei hori esan nienean barrez lehertu ziren.

- Ja, ja, ja..... Matildaren aitak amantala jantzi ea ontziak garbitzen ditu...!
- Ji, ji, ji... zure aita Marisukalde bat da!
- Miri, miru, mari, aita sukaldari...! -abestu zidaten jolas orduan.

Eta hurrengo egunerako egin behar nuen idazlana eta kezkatzen hasi nintzen. Zergatik ez ote nuen esan nire aita espazioriko supereroia zela, etxekoandrea zela esan ordez?

Egun hartan oso umore txarreko itzuli nintzen etxera, banekien aita etxean egongo zela, eta eskerrak! Banekien aitak zerbait barregarria kontatuko zidala ni animatzeko. Gure aita oso ona da xebebrekeriak kontatzen eta barrea eragiten, eta hori ez dakite aita guztiek egiten. Jogoratzen naiz, adibidez, tangoa dantzatzeko nola erakutsi zigun aitak sukaldean.

- Nahi baduzu tangoa ongi dantzatu, erratz kirtena zuzen hartu!

Guztia han ibili ginen dantzari erok bezela sukaldeko lurra garbitu bitartean. Beste batean, auzoko emakume batek sukaldeko errejeta bat eman zion aitari txokolaterako pastel bat egiten ikasteko, eta honek ipuin bat baltiz bezela irakurri zigun. Bazkal aurretik, sardetza eta goilarekin rock kontzertuak antolatzen uzten digu....

Kala ere, lan gogorra da etxekoandrea: hautsa kendu, aspiragailua pasatu, erosketak egin, arropak garbitu eta lixa-tu... Uff! Gauza gehiegi. Korregatik, aita oso nekatuta ikusten dudanean lagundu egiten diot: nere gela txukundu, ohea egin...

Egia esan, aitari lagunduz konturatu naiz etxekoandrea izatea ez dela batere gauza erraza. Baina, hala ere, oso ona da aita etxekoandrea edukitzea. Nire gelako lagunen aita gehienak erabat nekatuta iristen dira lanetik etxera, eta ez diete ipuinik kontatzen ezta irakurri ere.

Azkenean, gauza hauetaz ohartu eta pentsatzen aritu ondoren, oso gustura egin nuen eskolako lana. Aitaren laguntzari esker ikasi bait nuen tangoa dantzatzeko, txokolaterako pastelak egiten... hauek eta beste hainbat gauza aita etxekoandrea zelako ikasi nituela idatzi nuen.

Biharamunean, ozenki irakurri nuen idazlana gelan. Nire gelako beste lagunek aiten laneko gauzak bakarrik kontatzen zituzten, lanbide batzuk interesgarriak iruditu zitzaizkidan, baina aita okin, udaltzain edo kazetariak ez zekiten gure aitak egiten dituen gauzak egiten. Nire idazlana entzundakoan, denak harriturik eta inbidia piseka batekin geratu ziren eta handik aurrera niri ez zidan inork gehiago burlik egin.

Nire aita eragutzeko gogoa sartu zitzaion gelakoei, eta askaltzera gonbidatu nituen etxera. Bi ipuin kontatu zitzigun, pastelak egin eta eskuekin ukitu gabe jan genituen, mundiala baita nere aita!

"Nire aita etxekoandrea da" ipuinetik hartuta



GELAN DENON ARTEAN HAUSNARTZE-KO GALDE-ERANTZUNAK:

- 1.- Zure etxean nor da etxeko lanetaz arduratzen dena? Eta zer deritzozu?
- 2.- Gustuko al duzu Matildaren aitak duen lanbidea? Ongi iruditzen zaizu? Zergatik?
- 3.- Zuk zure etxean Matildaren kasua biziko bazenu, nola sentituko zinateka? (lotsatuta, harro...)



Zein motatako harremana daukazu pertsona hauekin? Errespetatzen al dituzu?

¿Qué tipo de relación tienes con estas personas?

¿Les respetas?

Ez dut errespetatzen



errespetatzen dut

Idatz ezazu bizi izan duzun kasu bat. Errespetatua edo errespetatua izan ez den kasu bat

Escribe un caso que hayas vivido, que hayas sido respetado o respetada o no respetado o no respetada